

BIODIBERTSITATEA

2. OR




MUGIKORTASUNAREN
EUROPAKO ASTEA

3. OR



HEGAZTIAK IKUSTEKO IBILALDI
GIDATUA MUGARTEA PARKEAN

4. OR



EGUBERRIETAKO TAILERRAK: EGUBERRI
JASANGARRIAGOA IZATEKO

7. OR

Egin nahi duzu bat erronkarekin?

O sasunaren Mundu Erakundeak (OME) egindako kalkuluaren arabera, bana beste 10 minutu erabiltzen ditugu dutxan, hau da, 200 litro ur gastatzen ditugu aldi bakoitzeko. Klimaren eta energiaren aldeko alkateen itunaren bidez, Nafarroan itunari atxiki gatzazkion entitate asko ados jarri gara herritarrei erronka bat proposatzeko: dutxa denbora murriztea, dutxatzen garen bakoitzean 120 litro ur aurrezteko.



Zatoz Udaleko Ingurumen alorrera eta harea-erloju erabilgarri bat emanen dizugu, bai eta erronka egiteko behar den informazioa ere

EZKORIZKO AINTZIRA, ZOLINA

Iruñerriko Mankomunitateak, POSUSAk eta Aranguren Ibarreko abeltzainek sinatutako akordioari esker, Ezkorizko aintziraren inguruko 70etik gora hektarea bazkaleku bihurtu dira



Bazkalekuek karbono hustuleku gisa jardungo dute, eta Mankomunitateak, haien bidez, bere zerbitzu eta instalazioek sortzen dituzten CO² isuriak konpentsatu nahi ditu.

Labore alorrak bazkaleku iraunkor bihurtzearen ondorioz, tona bat karbono metatu daiteke lurzoruan hektarea eta urte

bakoitzeko. Gainera, erregai fosil, ongarrri, fitosanitario, etab. gutxiago erabili eta biodibertsitatea handituko da: hegaztiak, intsektuak, landareak, etab.



BIODIBERTSITATEA

Gure Planetako biodibertsitatea gero eta azkarrago galtzen ari da; eta hori hiri inguruneetan da bereziki nabarmena.

Munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hirietan bizi den honetan, behar-beharrezkoa da natura inguru horietara itzultzea.

Biodibertsitateak, izan ere, onurak dakartza: adibidez, lagungarria da tenperatura beroak eta asotsak moteltzeko, airea partikula kutsagarri garbitzeko, lurzorua higaduratik babesteko, jendearen buru eta gorputz osasuna hobetzeko...



ZER NEURRI HARTZEN ARI GARA UDALEAN BIODIBERTSITATEA HIRI INGURUNEAN BABESTEKO?



- ✓ Ongarririk kimikorik, herbizidarik eta pestizidarik gabeko lorezaintza.
- ✓ Zuhaitzak eta zuhaixkak landatu
- ✓ Habia-kutzak eta aterpeak jarri hegazti eta saguzarrendako, tximeleten oasiak.
- ✓ Basa landaretzako partxeak lubeta, belardi eta hiri parke handietan
- ✓ Ur gutxiago behar duten berdeguneak sortu
- ✓ Ur aintzira naturalizatuak eraiki
- ✓ Izurriteak kontrolatu, harrapari naturalen bidez

TOKIAN TOKIKO ELIKAGAI EKOLOGIKOAK KONTSUMITZEA KONTSUMO TALDEEN BIDEZ



Pertsona talde horiek antolatzen dira tokiko elikagai ekologikoak eta artisauak zuzenean ekoizleei erosteko.

Kontsumo jasangarriagoa da, tokiko nekazaritzaren eta abeltzaintzaren aldekoa, eta elikagai bakoitzaren kontsumoa sustatzen du bere garairik onenean.

Mutiloan badago kontsumo talde bat. Argibide gehiago jasotzeko, etorri **urriaren 11n** prestatu dugun jardunaldira (ikus agenda) edo jarri harremanetan Ingurumen Alorrarekin.

Mugikortasunaren europako astea



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ERRONKA: ESKOLARA BIZIKLETAZ EDO PATINETEZ

Mugikortasunaren Europako Astea ospatze aldera, berriz ere joko diegu erronka ikastetxeei, egunero pertsona kopuru jakin bat bizikletaz edo patinetez joan dadin eskolara, irailaren **16tik 27ra**, biak barne.

Erronka gainditzen duten ikastetxeei opari-txartel bana emanen zaie hezkuntza-materiala erosteko; gainera, parte-hartzaileen artean opariak zozketatuko dira.

Oroitaraziko dugu, parte hartuko badute, bizikletek argia eraman beharko dutela aurrean eta atzean, bai eta txirrina ere. Horiek guztiak nahitaezko segurtasun elementuak baitira bizikleta gainean ibiltzeko, kaskoarekin eta atzeko islagailuarekin batera.

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

ZIENTZIAREN ASTEA



Zientzia Asteari lotutako hainbat jarduera prestatu ditugu urrian eta azaroan. Zientzia dibulgatzeko ekitaldia da, eta ikerketa, teknologia eta berrikuntza gizarteari hurbiltzea eta bokazio zientifikoak sustatzea du helburu.

EGUR SORTAK MUTILOAKO BIZILAGUNENTZAT

Lorezaintza Zerbitzuak egur sortak jarri ditu Mutiloan eroldaturik dauden bizilagunen eskura. Guztiak ere hiri ingurunean dauden zuhaitzak inausi eta moztetik heldu dira. Sorta bakoitzak metro kubiko bat dauka, enborrek metro inguruko luzera dute, eta sorta bakoitzak 12 € balio du.

Interesdunek 948 012 012 zenbakira deitu beharko dute **urriaren 4ra** arte. Eskari bakarra onartuko da etxebizitza bakoitzeko. Zozketa bidez, egur sortak emateko hurrenkera ezarriko da, disponibilitatearen arabera. Egurra lorezaintzako nabean jasoko da.



ARANGUREN IBARREKO INGURUMEN ARGAZKI LEHIAKETA 2024. MODALITATEAK: HAUR ETA GAZTEAK, ETA HELDUAK

- ➔ Bidali guri Aranguren Ibarreko natur aberastasuna erakusten duten irudiak, hala natur inguruneetan nola hiri inguruneetan ateratakoak. Argazkirik onenak Ibarreko ingurumen egutegian agertuko dira, eta irabazleek sari garrantzitsuak jasoko dituzte.
- ➔ Urriaren 16an bukatuko da argazkiak aurkezteko epea. Eskatu oinarriak udal bulegoetan edo deskargatu www.aranguren.es webgunean.

EHUNAK BIRZIKLATZEKO TAILERRA



Gure arroparen bizitza erabilgarria luzatzen ikasteko. Ekarri zure jantzia eta lagunduko dizugu.

Irailak 27, 17:00-19:00
Kultur Etxea

Helduentzat eta gazteentzat.
Izen-ematea: 3 €
Irakaslea: Silvia Martínez, PausaDaMente enpresakoa.

HEGAZTIAK IKUSTEKO IBILALDI GIDATUA MUGARTEA PARKEAN



Zatoz Mugartea parkea eta huraxe bisitatzen duten hegaztiak ezagutzera.

Irailak 29, 11:00etatik 13:00etara.

Jende guztiarentzat. Gomendagarria da prismatikoak eramatea. Doako jarduera, aurretik izena emanda.

TAILERRA, BARATZE EKOLOGIKOA: ONGARRI BERDEA



Ikasi nola erabili ongarrri berdeak baratzean, lurra babesteko eta ongarrizteko. Tailer teorikoa.

Urriak 2, 17:00etatik 18:30era

Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa.

Helduentzat eta gazteentzat.

Izen-ematea doakoa.

Irakaslea: Oscar Ibañez.

TAILERRA, ELIKADURA JASANGARRI ETA OSASUNGARRIA: NOLA SENDOTU SISTEMA IMMUNITARIOA



Nola funtzionatzen duen sistema immunitarioak, zer lotura duen digestio-sistemarekin, zer elikagaik sendotzen duten, eta zer elikagaik, kaltetu. Tailer praktiko honetan, tresna errazak

ikasiko dituzu zure eguneroko elikaduran aplikatzeko.

Urriak 4, 18:00etatik 20:00etara.

Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa.

Helduentzat eta gazteentzat.

Izen-ematea doakoa.

Irakaslea: Almudena Montero.

ALOE VERA TAILERRA



Erabilerak, laborantza, historia eta produktuak prestatzea. Parte-hartzaile bakoitzak bere produktua eginen du etxera eramateko.

Urriak 5, 10:00etatik 12:30era

Lekua: Berriztu Aranguren Hezkuntza Zentroa, Ilundainen.

Helduentzat eta gazteentzat.

Izen-ematea: 5€.

Irakaslea: Maika Heras.

Aranzadi Zientzia

Elkartea.

“TOXIKORIK GABEKO” IKASTAROA: GARBIKETA NATURALA ETA EKOLOGIKOA



6 orduko iraupeneko prestakuntza praktikoa, irtenbide ekologiko eta osasungarriekin etxea osorik garbitzeko.

Urriak 7, 14 eta 21, 18:00etatik 20:00etara.

Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa.

Helduentzat eta 16

urtetik gorako

gazteentzat.

Matrikula: 12€ pertsona edo familia-unitate bakoitzeko.

Kontziliazio-zerbitzurako aukera.

Jarduera guztiak plaza mugatuak dituzte eta izena emateko hurrenkeraren arabera esleitzen dira

Erroldatu gabeko pertsonen izen-emate kuoten prezioa jardueretan agertzen den prezioaren bikoitza izango da.



DASTAKETA SOLASALDIA: ELIKAGAI EKOLOGIKOETAKO KONTSUMO TALDEAK



Zergatik kontsumitu tokian tokiko elikagai ekologikoak? Zer dira eta nola dihardute talde horiek? Ba al dakizu Mutiloan ere

horietako bat dagoela? Informazio hori guztia eta hainbat elikagai ekologiko dastatzeko saioa.

Urriak 11, 18:00etatik 19:30era

Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa. Helduentzat eta gazteentzat.

Izen-ematea doakoa.



Zure baratzea, terraza edo lorategia intsektu onuragarriendako babesleku izatea nahi duzu? Ikasi intsektu hotelak egiten, hartan babestu daitezen

TAILERRA: INTSEKTU HOTELAK EGITEA, GAZTELANIAZ

Jende guztiarentzat. Gutxieneko adin gomendatua 8 urte.

Urriak 18, 17:00etatik 19:00etara

Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa.

Izen-ematea doakoa.

Irakaslea: Aterpeak, Haritz-Berri Fundazioa.

Laguntzailea: CPAEN-NNPEK.

TAILERRA: INTSEKTU HOTELAK EGITEA, EUSKARAZ

Jende guztiarentzat. Gutxieneko adin gomendatua 8 urte.

Urriak 20, 11:00etatik 13:00etara

Lekua: Ilundain.

Izen-ematea doakoa.

Irakaslea: Aterpeak, Haritz-Berri Fundazioa.

ERAKUSKETA: NAFARROAKO IPARRALDEKO PAISIAK ETA BIODIBERTSITATEA... ETA BERTAKO SUGEAK ETA SUGEGORRIAK



Erakusketan Nafarroako iparraldeko ekosistemak ematen dira ezagutzera, begirada berezia jarrita haietan bizi diren suge eta sugegorrietan, jendearen artean duten irudi oker eta txarra

gezuratzeko eta zer mehatxu eta kontserbazio arazo dituzten azaltzeko. Bereziki, Aranguren Ibarrean eta inguruetan dauden espezieak aipatzen dira.

Urriaren 17tik azaroaren 4era.

BISITA GIDATUA ERAKUSKETARA JENDE GUZTIARENTZAT: urriaren 17ko 17:30ean, gaztelaniaz/ 18:30ean euskaraz

Aranzadi Zientzia Elkarteo herpetologoen eskutik.

EZ GALDU AUKERA!
Izen-ematea doan

EHUNAK BIRZIKLATZEKO TAILERRA



Gure galtza bakeroen bizitza baliagarria luzatzen ikasteko. Ekarri agure batzuk eta lagunduko dizugu konpontzen, eraldatzen... Urriak 25, 17:00-19:00 Kultur Etxea.

Helduentzat eta gazteentzat.

Izen-ematea: 3 €

Irakaslea: Silvia Martínez, PausaDaMentekoa.

SORMEN TAILERRA: SUGEAK



Oihalezko zeure sugea egiteko eta animalia zoragarri horiei buruzko gauza asko ikasteko. Ekarri leotardoak edo galtza zaharrak.

Urriak 26, 11:00etatik 13:00etara

Kultur Etxea.

9 urtetik aurrera, eta 5 urtetik 8ra bitarte, heldu batek lagunduta.

Izen-ematea doan.

Irakaslea: Silvia Martínez, PausaDaMentekoa.

BIGARREN ESKUKO MERKATUA



Jada nahi ez ditugun baina egoera ezin hobean dauden gauza guztiei bigarren bizitza bat emateko. Urriak 27, igandea, 11:00etatik 13:30era

Lekua: Mutiloa plaza, Mutiloa. Salmenta-postu bat jarri nahi baduzu, eman izena hemen: www.mcp.es Laguntzailea: Iruñerriko Mankomunitatea.

BOTIKIN NATURALA: TINTURA PRESTATZEA DEFENTSAK AREAGOTZEKO



Ikasi tintura hori egiten sendabelarrekin neguaren ondorioei aurre egiten laguntzeko. Urriak 28, 17:30etik 19:30era. Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa.

Helduentzat eta gazteentzat. Matrikula: 5€. Irakaslea: Sara Nieto.

BARATZE EKOLOGIKOAREN IKASTAROA: NOLA TRATATU BARATZEKO LANDAREEN GAIXOTASUNAK ETA IZURRIAK



Landareak indartzeko eta gaixotasunei eta izurriei aurre egiteko erremedioak irakatsiko dizkizun tailer teorikoa da. Urriak 30, 17:00etatik 18:30era. Lekua: Kultur Etxea. Helduentzat eta gazteentzat.

Izen-ematea doakoa. Irakaslea: Oscar Ibañez.

TAILERRA, ELIKADURA JASANGARRI ETA OSASUNGARRIA: NOLA ANTOLATU ETA PRESTATU ASTEKO MENUAK DENBORA GUTXIAN



Tailer praktikoa da, udazken eta negu garaiko toki elikagaietan oinarritua, denbora aurrezteko, elikagairik batere xahutu gabe. Azaroak 7, 18:00etatik 20:00etara. Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa. Helduentzat eta gazteentzat.

Izen-ematea doakoa. Irakaslea: Almudena Montero.

TAILERRA: SASKIGINTZA JASANGARRIA



Xaboi-ontzi bat egingen dugu lorategi/baratzeko hondarrekin. Azaroak 8, 18:00etatik 20:00etara. Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa. Helduentzat eta gazteentzat. Izen-ematea doakoa.

Irakaslea: Alejandra Izcue Mariscal. Laguntzailea: CPAEN-NNPEK.

IRRITERAPIA



3 saioko tailerra da zeure irria berriz ere topatzeko, poza eta dibertsioa indartzeko, eta enpatia, komunikazioa, estresaren kontrola etab. sustatzeko, dena irriterapia tekniken, dinamiken, erlaxazioaren eta musikaren bitartez.

Azaroak 8, 15 eta 22, 16:30etik 18:00etara. Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa. Helduentzat eta gazteentzat. Matrikula: 5€, urriaren 30ra arte. Irakaslea: Yolanda Montero, La Risa Compartida.

KURRILOEN BISTARATZEA EZKORIZKO AINTZIRAN, ZOLINA



Azaroak 10, 10:00 h (gutxi gorabeherako iraupena: 2 ordu). Jende guztiarentzat. Gomendagarria da prismatikoak eramatea. Doako jarduera, aurretik izena emanda. Irakaslea: Xabier Esparza, Aranzadi Zientzia Elkartea.

BOTIKIN NATURALA: EZTARRIRAKO GRAGEAK EGITEA



Landareekin eta eztiarekin. Azaroak 18, 17:30etik 19:30era. Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa. Helduentzat eta gazteentzat. Matrikula: 5€. Irakaslea: Sara Nieto.

Jarduera guztiek plaza mugatuak dituzte eta izena emateko hurrenkeraren arabera esleitzen dira

Erroldatu gabeko pertsonen izen-emate kuoten prezioa jardueretan agertzen den prezioaren bikoitza izango da.

IKUSKIZUNA: MATERIA ZENTZUGABEA



Galdera zentzugabe batetik abiatu, hots, adibidez, hezurrik gabe bizi gintezke? edo eboluzioak ere huts egiten du?, eszenako zientzialarien eta ikusleen arteko eztabaida eragingen da. Zientzia zabaltzeko Big Van Ciencia-ren

ikuskitzen berria da, umorez bete-beterik. Azaroak 22, 20:00 h. Kultur Etxeko auditorioa. Helduentzat eta gazteentzat. Sarrera: 6€. Sarrerak Kultur Etxean salgai, azaroaren 18tik aurrera.

ZUHAITZAREN EGUNA



Zuhaitz landaketa, jende guztiarentzat. Azaroak 24, 11:00etan, lekua zehazteko. Izen-ematea doan.

EHUNAK BIRZIKLATZEKO TAILERRA



Gure arroparen bizitza erabilgarria luzatzen ikasteko. Ekarri zure jantzia eta lagunduko dizugu. Azaroak 29, 17:00-19:00 Kultur Etxea Helduentzat eta gazteentzat. Izen-ematea: 3 € Irakaslea: Silvia Martínez, PausaDaMente enpresakoa.

IRRITERAPIA FAMILIARTEAN



Gure poz eta dibertsioa indartzeko, eta enpatia, komunikazioa, estresaren kontrola, etab. sustatzeko; dena, irriterapia tekniken, dinamiken, erlaxazioaren eta musikaren bitartez.

Abenduaren 14, 10:00etatik 12:00etara. Lekua: Kiroldegia. Familientzat. Gutxieneko adina: 4 urte. Izen-ematea doan, azaroaren 29ra arte. Irakaslea: Yolanda Montero, La Risa Compartida

EGUBERRIETAKO TAILERRAK:

Eguberri jasangarriagoa izateko eta hainbeste ez kontsumitzeko ideiak



Hainbat tailer proposatuko dizkizugu zeure apaingarriak, postreak eta opariak egiten ikasteko. Zergatik ez oparitu... zuk zeuk egindako gauzak...? denbora zurekin...?

eguberrietako gozogintza TAILERRA FAMILIENTZAT



Txokolatezko turroia eta postrea egingen ditugu eguberriko apaingarriekin eta tokiko produktu ekologikoarekin, familia bakoitzak etxetik eramateko modukoa. Abenduak 13, 17:30etik 19:30era. Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa. Familiari zuzendua. Gutxieneko adina: 6 urte. Matrikula: 3€. Irakaslea: Sonia Carrasco.



SORMEN TAILERRA



Material birziklatua erabiliko dugu, bai eta naturako elementuak ere, eguberriko apaingarriak sortzeko.

Abenduak 14, 11:00etatik 13:00etara.

Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa.

Familiari zuzendua. Gutxieneko adina: 6 urte.

Matrikula: 3€. Irakaslea: Silvia Martínez,

PausaDaMente enpresakoa.



ERREGE OPILA EGITEKO TAILERRA



Errege opila egiten ikasiko duzu, tokiko elikagai ekologikoak erabiliz, eta etxera eramateko.

Abenduak 15, 10.00etatik 13:30era.

Lekua: Belaran Elkartea, Taxoare.

Helduentzat eta gazteentzat.

Matrikula: 8€.

Irakaslea: Sonia Carrasco.

KANDELA TAILERRA HAURRENTZAT



Ikasi kandelak egiten olio esentzialekin, lore lehorrekin, eta sormen handiarekin.

Abenduak 21, 11.30etik 13:30era.

Lekua: Kultur Etxea, Mutiloa.

8 – 12 urteko haurrentzat.

Matrikula: 3€.

Irakaslea: Sara Nieto.

ANTZERKIA FAMILIARTEAN: OLIVIA Y LAS PLUMAS



Olivia neskatoa herri txiki batean bizi da animaliaz inguratutik eta ahalmen berezi bat dauka, haiekin hitz egin baitezake. Dohain horri esker jakinen du zer egin arrainak lehortetik salbatzeko, hegaztiek lagundurik, eta planeta hobetzeko.

Azaroak 22, 18:00h.

Kultur Etxeko auditorioa Familientzat, 5 urtetik gora

Sarrera: 3€

Sarrerak Kultur Etxean salgai, abenduaren 23tik aurrera.



NATURGUNEA



Mutiloa Plaza, z/g



948 29 38 66



medioambiente@aranguren.es



Jarrai gaitzazu: Naturgunea Aranguren

INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOAREKIN ETA NATURGUNEAKO JARDUERA AGENDAREKIN EGUNEAN EGON NAHI DUZU?

BIDALI EZAIGUZU E-POSTA EDO WHATSAPPA



medioambiente@aranguren.es



618 828 802 telefonora zure izena adieraziz